


2009ko Udazkenako Txostena

Bake-prozesuaren egoeraren azterketa.



“Badugu bakearen aldeko pauso erraldoia emateko beharrezkoa dena”
(Angel Larraia - Atarrabia)



Egilea: Lokarriren Koordinazio Batzordea
Argitaratzen duena: Lokarri
Inprimaketa: Antza
Lege Gordailua: SS-972-2009

Jaso ditugun ekarpen guztiak helbide honetan daude hitzez
hitz bilduta eta jende guztiaren eskura:
www.lokarri.org

Bake prozesuaren begirale izateko, eta hurrengo txostenak
eta galdetegiak jasotzeko sartu **Behatoki Sozialaren** atalean:
www.lokarri.org

Aurkezpena

2009ko udaberriari eta udari dagozkien txostenak aurkeztu ondoren, Lokarrik bultzaturiko bake-prozesuaren Behatoki Sozialak (herritarrek bakerako prozesuaz zer iritzi duten jakiteko ekimenak) 916 gizon-emakumeren iritzia jaso du galdetegi baten bitartez; horrez gain, 13 toki behatokik egindako bileretan 114 lagunek parte hartu dute.

Txosten honek 2009ko udazkeneko egoera aztertu du, eta oso testuinguru berezian landu da. Izan ere, hainbat hila-betez erabateko blokeo-egoeran eta nola halako etsipenean bizi izan gara, inolako aukerarik ikustuz ez zelako; orain, ordea, argi-izpi batzuk sumatzen dira berez aski zaila den egoera batean. Udatik hona, ETAk ez du atentaturik batere egin, eta Ezker Abertzale tradizionalaren baitan eztabaida garrantzitsua zabaldu da estrategia berriaren diseinuari buruz; eztabaida horren erreferentzia nagusia Altsasun egindako adierazpena izan da, eta adierazpenean borondatea agertu zen indarkeriarik gabeko prozesuan eta bide demokratikoz aurrera egiteko.

Egoera horretan, joan den azaroaren 28an, Lokarrik lankidetzarako proposamena egin zion Ezker Abertzale tradizionalari. Proposamenaren edukiak bi zati ditu. Lehenbizikoan, zehaztapenerako ahalegina eskatu genion, berariaz eta gaur bertatik indarkeria erabiltzeari uko egiteko, eta era berean, indarkeria erabiltzeko saiakera orori eta indarkeria erabiltzeko mehatxuen saiakera orori ere uko egiteko, Ipar Irlandako prozesua gidatu zuten Mitchell Printzipioetan jasotakoarekin bat. Bigarrenean, Lokarrik konpromisoa hartu zuen Ezker Abertzalearekin lan egiteko, euskal herritarren herri-borondatea konponbide-egoera bateko erreferentzia bakarra izan dadin bermatzeko ahaleginean. Proposamenaren aurkezpen ekitaldian parte hartutako 130etik gora lagunek huraxe eztabaidatu zuten, World Cafe metodologia erabilita.

Era berean, beste gertakari garrantzitsu batzuk izan dira. Itxi zutenetik sei urte baino gehiago igaro diren honetan, hasi da Egunkariako arduradunen aurkako epaiketa. Saiakera bat ikustuz da, gainera, euskal gizartea konbentzitzeko indarkeriaren deslegitimazio politikoan aurrera egin dezan; hau da, ETAk indarkeriaren bidez defenditu dituen proiektu politiko guztiei uko egin diezaien.

Gai horiek guztiak (bakerako prozesua, prozesu berrirako aukera berriak, Lokarriren proposamena eta azken gertakariak) izan dira udazkenean zabalduko galdetegiaren oinarri nagusia. Toki Behatokietan, berriz, iritzia trukatzeko eztabaida sakonago bat izan da; hau da, iritzi desberdineko jendea mintzatu da Ezker Abertzale tradizionalaren proposamen berriaz.

2009ko udazkenari dagokion bake prozesuaren Behatoki Sozialaren txostenak lau atal handi ditu:

- 1- Bake prozesuaren egoerari buruzko galdetegiari emandako erantzunen analisia.
- 2- Toki Behatokien eta Lokarriren proposamena aurkeztu ondotik egindako World Café-aren ondorioak.
- 3- Bakerako prozesuaren egoeraren azterketa.
- 4- Lokarriren gomendioak.

Aurreko txostenekin gertatu den bezalaxe, Lokarrik konpromisoa hartu du haren edukiak zabaltzeko. Helburua da honen edukiak ekarpen baliogarria izatea, erakundeek, alderdiek eta eragileek indar handiagoz joka dezaten bake-arekiko duten konpromisoaren alde eta bizikidetzaren anitzaren alde, eta era berean, bide berriak eskain ditzaten prozesu berria ahalbidetuko duten baldintzak sortzen laguntzeko.

Bake-prozesuaren egoera.

Galdetegiak eskaintako emaitzen azterketa.

· I. zatia ·

1. Zer iritzi duzu bakerako prozesuaren egoerari buruz?

Bake-prozesuaren egoerari buruzko pertzepzioa hobetu egin da, Behatokiaren azken txostenetik hona; hau da, 2009ko udatik hona. Orduko hartan, balorazioa, batez beste, 2'8 izan zen, eta orain, 3'7raino igo da; beraz, bake-prozesuaren egoerari txarra eta hala moduzkoa artean iritzi zaio. Parte-hartzaile gehienek iritziak, egoera txarra da (% 44). Gora egin du egoera hala moduzkoa dela dioten iritziak (% 23) eta nabarmen murriztu da oso txartzat ikusten dutenen kopurua (% 25 eta, udan aldiz, % 47).

Balorazio horiek argudiatzeko, parte-hartzaileek bost arrazoi hauek eman dituzte nagusiki: 1) ausardiarik eta borondaterik eza bake-prozesu bati ekiteko, eta arazoa tratatua egotea, 2) Eusko Jaurlaritza eta Gobernu Zentrala ez daude inola ere elkarriketarako prest, eta haien jarrera konfrontatiboa da, 3) ez dago aurrerapauso adierazgarririk aukerarik txikiena ere sumatzeko, 4) blokeoa, eta elkarriketarik eza, 5) ETAk ez du inolako borondaterik indarkeriari amaiera emateko, eta 6) Ezker Abertzale tradizionalak ez du indarkeria errefusatzeko borondaterik.

Aitzitik, egoera hala moduzkoa dela pentsatzen duten gehienek diote hori esateko arrazoi nagusia dela Ezker Abertzale tradizionala aurrerapauso ausartak hasi dela ematen ETAREN indarkeriari amaiera ematen laguntzeko.

2. Orain dela urte bat baino aukera gehiago dago bakea lortzeko?

Aurreko galderan agertutako joera galdera honetan ere azaldu da. Horrela, udan, % 84k uste zuen orain dela urtebete lehenago baino aukera gutxiago zegoela bakea lortzeko; orain, ordea, portzentaje horrek % 54raino egin du behera. Aldiz, % 33k pentsatzen du orain aukera gehiago dagoela, eta udan % 8k besterik ez zuen hori pentsatzen.

Aurreko galderan emandako argudio berberak eman dituzte bakea lortzeko aukera gutxiago daudela diotenek: hau da, ausardiarik eza, gobernuen jarrera, elkarriketarik eza eta ETA indarkeriari eusteko prest egotea. Kasu horretan ere, orain aukera gehiago daudela uste dutenek Ezker Abertzale tradizionalaren mugimenduak argudiatu dituzte, itxaropenerako arrazoi nagusi gisa.

3. Bake eta normalizazio gaia orain dela urte bat baino gehiago edo gutxiago interesatzen zaizu?

Udan lorturiko erantzun berberak atera dira ia: % 72k dio duela urte bat bezain interesatua dagoela; % 24k, gehiago, eta % 3k soilik, gutxiago.

4. Seinala itzazu zure iritzian bakea lortzeko dauden oztopo nagusiak.

Aurreko galdetegietan emandako erantzunak errepikatuta, galdetegi honi erantzun dioten lagunen iritziz, bakea lortzeko bi oztopo nagusiak elkarrizketa gabezia (% 71) eta ETAREN indarkeria (% 70) dira. Ilegalizazioak arazo garrantzitsua direla dioten portzentajea handitu da (% 42, udako % 37ren aldean), eta gainerako arazoak antzeko portzentajeetan atera dira: presoek sakabanaketa % 13), torturak (% 12) eta kargu publikoei zuzendutako mehatxuak (% 8).

5. Seinala itzazu azkenaldian jazotako gertakarien artean garrantzitsuak iruditu zaizkizunak.

Galdetegiari erantzuna eman dioten 5 lagunetatik 4k esan dute Arnaldo Otegi, Rafa Diez eta Ezker Abertzale tradizionalaren beste buru batzuen atxiloketak izan direla udazkeneko gertakaririk garrantzitsuenak. % 60k ere Altsasuko adierazpena aipatu du, eta erdiek nabarmendu dute udatik hona ETAREN atentaturik gertatu ez izana. % 34k Segiko kideen atxiloketa aipatu dute gertakari garrantzitsu gisa, eta 10etatik 1ek bakarrik, terrorismoaren biktimei egindako omenaldi-ekitaldia.

6. Zure iritzian, betetzen al dira bake-prozesu berri bat abiatzeko baldintzak?

Iritziak 2009ko udaberriko txostenean agertzen ziren balioetara itzuli dira. Baldintzak betetzen ez direla uste dutenen portzentajea % 50eraino murriztu da; udan, ordea, 3 lagunetatik 2 ziren. Baldintzak betetzen direla uste dutenen portzentajea, aldiz, % 35eraino igo da; udan, ordea, 4tatik 1ek bakarrik esaten zuen hori.

Gehienek aukerarekin bat egin dutenen artean, hau da, baldintzak ez direla betetzen dioten artean, gauza hauek adierazi dituzte beren jarrera arrazoitzeko: 1) ETAK ez duela inola ere indarkeria uzteko borondaterik erakusten, 2) gobernuak, PSOEk eta PPK ez dutela elkarrizketa-prozesua ireki nahi, 3) oro har ez dagoela borondaterik hitz egiteko eta negoziatzeko, eta 4) Ezker Abertzale tradizionalaren argitasun txikia ETAREN indarkeriarekiko jarreraren.

Bake-prozesu berrirako baldintzak betetzen direla dioten % 25ek haxe nabarmendu du: 1) herritar gehienek bakea nahi dutela, 2) atentaturik ez izatea, eta 3) Ezker Abertzale tradizionalaren erantzuna indarkeriarik gabeko etapa berria irekitzeko. Lagun askok gehitu dute, gainera, beti betetzen direla bake-prozesu baterako baldintzak, baina sumatzen dute ez dagoela huraxe hasteko konpromisorik.

7. Eman itzazu bakea lortzen lagun dezaketen bi ideia edo proposam zehatz.

Galdetegian parte hartu dutenen proposamenik errepikatuena ETAREN indarkeriaren amaiera da: izan daiteke tregoa mugagabea, indarkeria eten egiteko adierazpena edo armak uztea. Era berean, proposatu da elkarrizketa-prozesu berria abiaraztea, baina iritziak ez datoz bat bake-prozesuaren protagonistez: Gobernuak eta ETA edo alderdi politiko guztiak.

Hona hemen gehien aipatu diren gainerako ideiak: 1) Ezker Abertzale tradizionalaren adierazpena, bake-bideen aldeko apustua egiteko edo ETARI indarkeriari amaiera eman diezaion eskatzeko, 2) alderdi politikoek ilegalizazioei bukaera ematea, 3) presoek sakabanaketari bukaera ematea, eta 4) herritarren mobilizazioa.

8. Eman itzazu akordio politiko bat lortzen lagun dezaketen bi ideia edo proposamen zehatz.

Era askotako ideiak eta proposamenak eman dira; hori dela eta, bat bera ere ezin da nabarmendu besteen artetik. Hona hemen gehien errepikatu direnak: 1) erabakitze eskubidea edo autodeterminazio eskubidea aitortzea, 2) alderdi politiko guztien artean elkarrizketa-prozesua hastea, 3) alderdi politiko guztiek baldintza berdinetan parte hartzea eta alderdi guztiak legezztatzea, 4) ETAren indarkeria behin betiko bukatzea, 5) herritarren borondatea errespetatzea, kontsulta edo erreferendum bidez adierazia, eta 6) alderdi independentisten edo soberanisten batasuna.

9.1. Gobernuen ekarpenaren gaineko balorazioa.

Inkestan parte hartu duten jendeak gaitz iritzi dio gobernuek bake-helburuaren gainean egin duten ekarpenari; beraz, aurreko txostenetako irudipenak berretsi dira. Iritzirik txarrena Nafarroako Gobernuari eman zaio; 10etik 1,7ko nota eman baitzaio, Gobernu Zentralak jasotakoaren oso antzekoa: 10etik 2; Eusko Jaurlaritzari, bestalde, 2,4 eman zaio.

9.2. Alderdi politikoaren gaineko balorazioa.

Bake-ekarpenari buruzko baloraziorik onena jaso duen alderdia Aralar da, 6,5 jaso duelako. Era berean, 5etik gorako nota jaso dute Eusko Alkartasunak (5,7), Ezker Batuak (5,5) eta EAJk; beraz, aurreko txostenetan agertu diren joerei eutsi zaie.

Ezker Abertzale tradizionalari 4,3 eman zaio; hortaz, udaren aldean, joera aldatu da. Izan ere, udakoan, parte-hartzaileen % 64k txarra edo oso txarra iritzi zion Ezker Abertzale tradizionalaren ekarpenari.

Azkenik, suspenditu egin dute PSE-PSNek, PPK eta UPyDk: 2'4, 1'5 eta 1'4 atera dute, hurrenez hurren.

Bake-helburuaren inguruan ekarpena hobetzeko proposamenei dagokienez, parte-hartzaileek oro har jarreraz aldatzeko eskatu diete. Aurreko galderetan adierazi diren kritikez haratago, galdetegiari erantzun diotenek gobernuak eta alderdiak animatu dituzte beste iritzi batzuetara irekitzera, hitz egitera, entzutera, gauzak lortzearen alde lan egitera, amore ematera, eta alderdikeriak bazterrean uztera.

9.3. Lokarriren jardueraren gaineko balorazioa.

Lokarriren jokabideari 7,5 eman diote parte-hartzaileek. Aldeko iritzien artean nabarmendu da konponbide partekatua bilatzeko lana; eta aldeko iritzia alde batera utzita, eskaera bat egin zaio Lokarrik are ahalegin handiagoa egin dezan bere proposamenak eta jarduerak zabaltzeko.

10. Zer iritzi duzu Egunkaria-ko arduradunen auziaz?

Galdetegiari erantzuna eman dioten lagunen iritzia bitan zatitua dago. % 44rentzat auziak artxibatua egon behar zuen, fiskalak eskatu bezalaxe. % 43k dio auzipetuak errugabeak direla eta absolbitu beharko lituzketela. Galdetegiari agertutako gainerako erantzunek (justiziari independentzia jokatu eta bere erabakia hartzen utzi behar da, eta, nabarmena da Egunkaria-ko arduradunak ETAren agindupean ari zirela) % 3 eta % 1eko babes besterik ez dute jaso, hurrenez hurren.

11. Zein da zure iritzia hurrengo baieztapenaz?

ETAren deslegitimazio politikoa gauzatu gabe dago, ETAk defenditutako proiektuekin bat etor daitezkeen proiektu guztiak baztertzean datza deslegitimazio hori.

Parte-hartzaileen iritzia argia da galdera honetan. % 71k dio iritzi hori euskal gizartearen pluraltasuna ezabatu nahi duen iritzi antidemokratikoa dela. Beste % 18 bat kontra ere agertu da eta pentsatzen du ahalegin bat dela nazionalismoak independentziari uko egin diezaion. % 10ek bakarrik baieztatzen du beharrezkoa dela indarkeriari bukaera emateko, eta % 1en iritzi, euskal gizarteak biktimei zor diela.

· II. zatia ·

1. Ezagutzen al duzu Ezker Abertzale tradizionalak Altsasun egindako deklarazioaren edukia?

Erantzun dutenen % 47k dio deklarazioaren edukia ezagutzen dutela; % 43k, aldiz, ez dituela xehetasun guztiak ezagutzen. % 10ek soilik dio ez duela ezagutzen.

Zein da zure balorazioa?

Ia parte-hartzaileen erdiek uste dute badakarrela osagai berriren bat, baina ez dela nahikoa argia indarkeria gaiari dagokionez. % 38k, ordea, dio Ezker Abertzale tradizionalaren borondatea erakusten duen pauso garrantzitsu eta ausarta dela. Azkenik, % 15ek soilik uste du ez diela ezer berririk gaineratzen aurreko deklarazioei eta ez dela sinesgarria, indarkeriaren amaiera eskatzen ez duelako eta gaitzesten ez duelako.

Jende gehienak erantzun duenarekin bat datozenek emandako arrazoien artean argudiatu da adierazpenarekin batera Ezker Abertzale tradizionala ETArengandik askatu behar dela. Era berean, esaten da ETAk berak atentatu baten bidez deklarazioa ezezta dezakeela. Gainera, uste dute berandu heldu dela, anbigua dela eta mesfidantza normala dela, aurreko etsipenen ondotik.

Pauso garrantzitsu eta ausarta dela dioten artean nabarmendu da Ezker Abertzale tradizionalak arriskatzeko gaitasuna erakutsi duela eta soil-soilik bide demokratikoak erabiliko dituen bake-prozesu bat garatzeko borondatea agertu duela. Halaber, haien iritzi, adierazpena pauso eraikigarria da eta denbora eman behar zaio, mamitu dadin.

2. Nahikoa al da deklarazio hau konponbide prozesu bat abiatzeko?

Parte-hartzaileen % 43k uste du pauso garrantzitsua dela, baina deklarazio bat behar dela indarkeriari uko egiten diola esateko. Aldiz, 4tatik 1ek dio nahikoa dela, Ezker Abertzale tradizionalaren borondatea argia delako. % 20k kontrakoa dio; hau da, aurretik ETAk indarkeria baztertu behar duela. Azkenik, % 12 iritzi berekoa da baina kontrako arrazoientatik: hau da, gobernuak aurretik elkarriketarako jarrera erakutsi behar duela. Nabarmendu behar da inork ere ez duela hautatu beste aukera hau: Ezker Abertzale tradizionalarekin kasu bakar batean ere ez dela hitz egin behar.

3. Ezagutzen al duzu Lokarrik Ezker Abertzale tradizionalari egindako proposamena?

Parte-hartzaileen % 40k dio ezagutzen dutela; % 29k, aldiz, ez duela ezagutzen, eta horixe da aukerarik zabalduena galdetegiari euskaraz erantzun diotenen artean (% 41). Azkenik, % 31k dio urriki ezagutzen dutela.

Nola baloratzen duzu?

Parte-hartzaileen erdiek diote prozesu berri bat hasten lagun dezakeen ekarpena dela. % 39k dio interesgarria dela, herritarren ahotsari tokia ematen zaiolako. Gainerako aukerak neurri txikiagoan hautatu dira: horrela, % 6k uste du soilik Ezker Abertzale tradizionalari exijitzen zaiola eta ez Gobernuari; % 5ek, proposamen ona dela, baina ez duela ezertarako balio izango, eta % 1ek dio proposamena ez dela nahikoa irmoa ETAREN aurrean.

Parte-hartzaileek nabarmendu dute proposamena Giza Eskubideen defentsatik sortu dela, eta elkarrizketa sustatzeko asmoz. Gainera, ontzat jotzen dute proposamena zehatza izatea, bai eta aukerak baliatzeko eskaintzen duen parada ere. Era berean, azpimarratu da proposamenak herritarrak jarri dituela prozesuaren ardatz eta gizartearen parte-hartze politikoa sustatzen duela.

4. Testuinguru honetan, zein dira aurre-baldintzak bake prozesu berri bat hasteko?

Hona hemen zer erantzun aukeratu diren gehien: ETAREN indarkeria behin betiko amaitzea (% 47); Gobernuaren adierazpena elkarrizketa prozesu bat onartzen duela esanez (% 46); Ezker Abertzale tradizionalaren deklarazio bat indarkeriari uko eginez (% 45). Bigarren blokean baldintza hauek agertu dira: Ezker Abertzale tradizionalaren buruak aske uztea (% 36); ETAREN su-etena (% 33); alderdi abertzaleen batasuna (% 30) eta presoek sakabanaketari bukaera ematea (% 29). Azkenik, % 22k uste du lurraldetasuna eta autodeterminazioa aitortzea aldeztu aurre-baldintza dela, eta % 16k dio bakar bat ere ez dagoela; posible dela prozesua gaur bertan abiatzea.

Egindako ekarpen batzuk

Izenburu ugari prentsan, baina geldirik eta blokeatuta egotearen sentsazioa dago

Lurralde zuri edo beltzak finkatzea bilatzen da, atak itxiz elkarrizketa eta distentsio testuinguru baten aukera formal zein informaletara

Porrot egindako negoziaketarako azken ahalegina politikoki oso garesti atera zaio gobernuari eta agerian utzi du ETAren eta bere inguruko borondate gabezia

Beren burua demokrata izendatzen dutenak makilak jartzen ari dira bakearen gorpilari, eta biolentoak, biolentoak dira

Ez dut sekula ikusi guztiari Ez esanez konponbidera iritsi den gatazkarik: elkarrizketari Ez, negoziatioari Ez eta gatazka mota guztiak konpontzeko hain funtsezkoa den hitzari EZ

Denboraren igarotzea bakea lortzearen aurka doa

Akatsa izan zen su-etena haustea; gertakariak alde batera utzita (legez kanporatutako ezker abertzalearen diskurtsoaren aldaketa hipotetikoa), ilegalizazioaren estrategia-ildoari eustea, ere bai

Ezta poliziaren errepresiorik handienak eta ezta ETAren itxikeriak ere ezin gaituzte eraman toki desiratu bakar batera ere

Tokiko Behatokiak eta World Cafearen ondorioak

Toki Behatokiak. Ezker Abertzale tradizionalaren barruko eztabaida, eta egoera desblokeatzeko proposamenak.

1. Ezker Abertzale tradizionalaren proposamenaren azterketa

Toki Behatokiak bileraren lehen zatian, parte-hartzaileek Ezker Abertzale tradizionalak berrikitan Altsasun aurkeztutako proposamena izan zuten aztergai, aipatu adierazpen horretako aspektu positiboak, gabeziak eta gauzarik deigarrienak nabarmentzeko.

Ezker Abertzale tradizionalaren proposamenaren alde positiboak.

Toki Behatokietan parte hartu dutenek hainbat aspektu positibo azpimarratu dituzte, eta horien artean, ideia hau agertu da indar handiz: Ezker Abertzale tradizionalaren proposamenak apustu egiten du euskal herritarren herri-borondatea prozesu berri baten erreferentzia nagusia izateko. Esaten da herritarren parte-hartzea susta dezakeela, eta huts-hutsean elementu demokratikoa dela, prozesu berri baten oinarriak jartzeko.

Parte-hartzaileek, era berean, adierazi dute gauza ona dela proposamenak esatea prozesu berria inolako indarkeriarik eta mehatxurik gabe garatu behar dela. Parte-hartzaileek diote irudipen hori sendotua dagoela, proposamenean Mitchell Printzipioei zuzeneko aipamena egiten zaielako; jakina denez, printzipio horiek Ipar Irlandako elkarrizketa-prozesurako oinarriak finkatu zituzten.

Parte-hartzaileek ere ontzat jo dute elkarrizketan oinarritutako prozesuaren alde egin den apustua, bai eta prozesu horretan demokrazia-bide hutsez aurrera egiteko hartu den alde bateko konpromisoa ere. Toki Behatoki batzuek, halaber, Ezker Abertzale tradizionalaren akordio-borondatea azpimarratu dute, euskal gizarteko sentiberatasun guztiak biltzeko borondatearen erakusgarri.

Edukierik haratago, positiboa ere bada barne-eztabaida zabaltze hutsa eta gizarte osoari edukien berri ematea; izan ere, horrek aldaketa-borondate bat erakusten du, irtenbideak bilatzeko garai berri bat zabaldu nahia, eta hori ez da ohikoa izaten alderdi politikoetan, elkarrizketarako eta entzuketarako ekimen honetan parte hartu duten batzuen iritziz.

Proposamenaren gabeziak.

Toki Behatokietan parte hartu dutenen iritziz, proposamenaren gabezia nagusia sinesgarritasuna da. Alde batetik, haien ustez, proposamena ez da behar bezain argia, eta bai, anbiguoegia, ETaren indarkeriari buruz. Gai horretan jarrera argiagoa faltan sumatzen dute. Bestalde, parte-hartzaileek diote, aurreko prozesuen porroten ondotik, gizar-teak mesfidantzaz ikusten duela estrategia berria, hobe baina itxaropenik ez izatea, itxaropen txarra izatea baino.

Bestalde, parte-hartzaileek diote ez dakitela zer-nolako eragina izan dezakeen adierazpenak ETaren baitan. Ez dira fidatzen Ezker Abertzale tradizionalak, bere osoan, proposamenaren edukiekin bat egin izanaz, eta beldur dira sektore batzuk beste bide batetik ez ote diren joango. Horren adibidea litzateke ETak oraindik komunikaturik atera ez izana Altsasuko Adierazpenarekin bat egiteko.

Azkenik, hona hemen parte-hartzaileek adierazi dituzten beste gabezia batzuk: 1) Ezker Abertzale tradizionalak aurrerapausoa emanda ere, ez dagoela inola ere bermatua gobernuak sektore horri hurrengo hauteskundeetan parte

hartzen utziko dionik, 2) aurrekoen aldean, ez dela egiazki oso proposamen berritzailea, Anoetako Adierazpena bere garaian izan zen bezala, eta 3) ez dagoela argi adierazpen horrek Ezker Abertzale tradizionalaren gidaritza sendotzeko bidea ekarriko ote duen ETArek beraren aurrean.

Proposamenak dakartzan beste aspektu interesgarri eta deigarri batzuk.

Toki Behatokitako parte-hartzaileek bereziki interesgarritzat jo dute proposamenean Mitchell, Printzipioak aipatu izana, Irlandako adibidea erreferentzia izan baitaiteke elkarrizketan eta indarkeriaren amaieran oinarritutako konponbidea bilatzen saiatzeko. Era berean, parte-hartzaileek azpimarratu dute Ezker Abertzale tradizionalak beste indar abertzale batzuekiko batasunaren eta ekintza bateratuaren aldeko apustua egin izana, polo soberanista esaten zaion ekimenaren bidez.

Era berean, parte-hartzaileek adierazi dute proposamenari bestelako jarrera dariola, bestelako gogoia, irekiagoa, autokritikoagoa, eta gatazkaren korapiloa askatu nahi duela; parte-hartzaile batzuk, dena den, oso eszeptikoak dira eta, haien ustez, itxiegia da; ez, ordea, errealista. Gabezien atalean bezala, parte-hartzaileen artean esan da proposamenak ez duela zehazten zer indarkeriaz ari den, prozesua indarkeriarik gabe garatu behar dela esaterakoan.

Beste ideia bat izan da zaila dela proposamen hori garatzea, Ezker Abertzale tradizionalako buruak espetxeratuak dauden honetan.

2. Ezker Abertzale tradizionalari eta gainerako eragileei zuzendutako proposamenak.

Toki Behatokiaren bileren bigarren zatian, beste gai batzuk jorratu ziren. Zehazki, parte-hartzaileei bi helbururekin proposamen zehatzak egiteko eskatu zitzaizkien: 1) batetik, Ezker Abertzale tradizionalari, haren proposamenean atzemandako gabeziei aurre egitea, eta 2) bestetik, gainerako eragileei, irekitako aukerak zehazten laguntzeko, bake-eta konponbide-prozesu berri bat garatze aldera.

Indarkeriaren amaiera.

Parte-hartzaileek Ezker Abertzale tradizionalaren proposamenean atzeman dituzten gabeziekin bat, parte-hartzaileek bere proposatu dute definizio bat lantzea indarkeriaren gaiaren inguruan. Hiru formula eman dira: a) Ezker Abertzale tradizionala ETArengandik argi eta garbi aldentu dadila, b) Ezker Abertzale tradizionalak ETArek eskari bat helaraztea, borroka armatuari bukaera eman diezaiola, edota zuzenean errefusa edo gaitzets dezala, eta c) ETArek bere aldetik indarkeriaren amaiera iragartzea.

Ez da eztabaida eragotzi behar.

Parte-hartzaileek proposatu dute Gobernuak utz diezaiola Ezker Abertzale tradizionalaren baitako eztabaida eragotzeari eta oztopatzeari; atxiloketarik eta debekurik ez egiteko; Alderdien Legea indargabetzeko, Ezker Abertzale tradizionalak baldintza berdinetan parte har dezan; eta guztien arteko elkarrizketaren aldeko apustua egin dezala, konponbidea bilatzen lan egiteko.

Elkarrizketa eta batasuna.

Oro har, alderdi politikoei eskatu zaie elkarrizketa-prozesu bat abiarazteko, eta alderdien mahaia osatzeko. Alderdi abertzaleei, zehazki, proposatu zaie ahalegin handiagoak egin ditzatela ekintza-batasuna bultzatzeko.

Herritarren parte-hartzea.

Parte-hartzaileek, oro har, gizartearen sostengua eta parte-hartzea sustatzeko eskatu dute, konponbide-prozesu berri batean. Adibidez, Ezker Abertzale tradizionalari proposamena egin zaio, bere proposamenari buruzko hitzaldi eta jendaurreko eztabaidak antola ditzan. Era berean, gizarteari eskatu zaio martxan jar dadila prozesu berri bat bultzatzeko.

World Cafe. Lokarrik Ezker Abertzale tradizionalari helarazitako proposamena.

Azaroaren 28an, Lokarrik bakerantz eta akordiorantz aurrera jotzeko proposamena aurkeztu zuen (ikus eranskina). Jendaurreko aurkezpena bukatutakoan, ekitaldira joan ziren guztiek proposamenaren edukia izan zuten eztabaidagai World Cafe batean. Ondoren, jendeak emandako ideien ondorio nagusiak ageri dira.

1. Lokarrik aurkeztutako proposamenari buruzko iritzi orokorra.

Parte-hartzaileen iritiz, proposamena oso positiboa da. Arriskatua dela adierazi dute, ausarta, bide berriak urratzeko gai dena, koherentea; itxaropenari eusteko arrazoi bat.

2. Proposamenaren indarguneak.

Parte-hartzaileen esanetan, Lokarrik aurkeztutako proposamenaren indargune nagusia herritarrei ematen zaien protagonismoa da. 100 herri-kontsulta deitzeko eta egiteko planteamendua lanabes interesgarritzat jotzen dute, gizartearen borondatea prozesu berri batean erabakigarria izan dadin.

Hona hemen jendeak azpimarratutako beste indargune batzuk: 1) proposamen arriskatua eta ausarta dela, 2) aukerak baliatzeko pentsatua dagoela, eta 3) eskari edo eskakizun hutsaz haratago doala.

3. Proposamenaren ahulguneak.

Parte-hartzaileek gehien aipatu duten ahulgunea da ez dagoela konfiantzarik eta sintoniarik Ezker Abertzalearen eta Lokarriren artean; beraz, horrek proposamena ez onartzeko arriskua ekar dezake edo proposamenari axolagabetasunez erantzutea.

Horrez gain, beste ahulgune hauek ere aipatu dira: 1) Lokarri Ezker Abertzale tradizionalarekin identifikatzeko arriskua, eta ondorioz, Lokarrik duen neutraltasun-irudia galtzea, 2) sektore politiko honek dituen barne-zailtasunak, hainbat ikuspegi baitaude indarkeriari buruz, 3) Lokarrik ez duela behar hainbateko indarrik proposamena zehaztu dadin lortzeko, 4) gizarteak Ezker Abertzale tradizionalarengan duen konfiantza txikia; bereziki, azken bake-prozesuaren porrotaren ondotik, eta 5) proposamenaren arrakasta ez dagoela Lokarriren esku.

4. Ekarpenak.

Parte-hartzaileek, halaber, ideia zehatzak eman zituzten proposamenaren edukia hobetzeko. Hona hemen nabarmenetako batzuk:

- Ezker Abertzaleaz mintzatzerakoan, terminologia aldatzea: “tradizionala” eta “ofiziala” adjektiboak erabiltzea.
- 100 kontsultak egun berean egingo direla adieraztea.
- Proposamena 100 kontsulta horietara ez mugatzea, eta ateak zabalik uztea gehiago egiteko.
- Zehatzagoak izatea indarkeriaren amaiera galdegiterakoan, eta hori aurre baldintza izatea Ezker Abertzale tradizionalarekin lankidetzan aritzeko.
- Lokarrik zer egingo duen zehaztea, Ezker Abertzale tradizionalak eta gainerako alderdiek proposamena onartzen ez badute.

Egindako ekarpen batzuk

Konturatu prozesu orok behar duela laguntza, presioa eta gizartearen kritika. Akonpainamendua beharrezkoa dela eta baita botereari eskatzea ere bertan papel aktiboa izatea. Irun.

Aldaketa gertatu da dagoeneko, orain gakoa da: nola eman forma? Donostia.

Esaten da prozesua indarkeriarik gabe gertatu behar dela, maina ez da aipatzen zehazki nola amaitu berarekin. Zer dago lehenik eta behin, indarkeria bukatzea ala prozesua hastea? Getxo.

Borroka armatuaren amaiera arrazoi etikoengatik edo koiuntura/estrategia arrazoiengatik gertatu behar da? Antzuola.

(Ezker abertzaleak) Jendeari mezua helarazi behar dio, gazteekin lan egin behar du. Hernani.

Tregua batek ez luke sinesgarritasunik izango, modu bakarra armak ematea da, egutegi batekin. Bestela, ezingo dute ezer egin. Barakaldo.

Arduratuta daudela. Mugitzen ari direla. Zerbait proposatu dutela. Eztabaidatu daitekeela. (Ezker abertzalearen proposamenaren alderdi positiboak). Bilbo-Abando.

Alderdiei eta gobernuari: Batasunaren proposamenean sinistko beharra dago bake prozesu berri bat bultzatzeko. Bestela, ez dugu inoiz aurrera egingo. Bilbo-Indautxu.

ETAri: lortu nahi dituen helburuak lortzetik geroz eta gehiago urruntzen du indarkeriak, beraz, borroka armatua utzi behar du. Iruñea.

Gabeziak izan baditu, baina bidea ibiliz egiten da. Urrats gehiago ematear daude. (ezker abertzalearen proposamenari buruz). Tolosa.

Ezker abertzaleari proposamena: analisiak egiteko orduan, iragana ahaztu gabe, gehiago jarraitzen orainean, etorkizunari begira. Gasteiz.

ETAri: armak definitiboki utzi. "desegin zaitezte: Euskal herriarentzako ekarpenik onena izango da". Portugalete.

Bistaratu eta eredutzat hartu konpondutako beste gatazka batzuk. Galdakao.

Bake-prozesuaren egoerari buruzko azterketa bat.

1. Bakearen alde aurrera egiteko aukera berriak.

Bakearen aldeko prozesuaren egoera ez da nabarmen hobetu. Ez da aurrerapauso erabakigarriarik eman bake prozesua ahalbidetzeko baldintza beharrezkoak agertzen dituen testuinguru batean gaudela sinisteko. Ez dago ETaren borondate argirik indarkeria baztertzeko eta alderdi eta erakundeek ez dituzte suspertu elkarrizketa esparruak blokeo egoerari irtenbidea era partekatuan bilatzeko.

Baina bakea lortzeko aukera berriak azaltzen hasi direla pentsatzera garamatzaten elementu berriak eskaini ditu azken hiru hilekoak. Estrategia berri bat prestatzeko Ezker Abertzale tradizionalaren baitan bultzaturiko barne-etzabaida garrantzitsua eta ETaren atentatuen gabezia udaz geroztik dira adierazgarri nagusiak.

Aipatu bi zirkunstantzia horiei esker etorkizuna itxorapentsuago ikusten da, baina modu errealista batean, hau da, zailtasun mordoa begien bistatik alde egin gabe. Ondorio bezala, bake prozesuaren egoera hasi berri da desblokeatzen.

2. Ezker Abertzale tradizionalaren eztabaida bakea lortzeko aukera bat da.

Ezker Abertzale tradizionalak Altsasun egindako deklarazioak bide ematen du pentsatzera sektore sozio-politiko hori aurrerapausoak ematen ari dela soilik baliabide politikoak eta demokratikoak, indarkeriaren erabilera baztertuz, kontuan hartzen dituen estrategia definitzeko orduan. Herri borondatea errespetatzeko konpromisoa eta elkarrizketa prozesu baten aldeko apustua bakea lortzeko aukera berri bat sor dezaketen elementu berriak dira.

Sinesgarritasuna da proposamen horren gabezia nagusia: 1) ez diolako argi eta garbi adierazten bere gaitzespena indarkeriaren erabilerari eta 2) bakea lortzeko iraganeko porrotak direla eta, gizartea oso eszeptiko dagoelako.

3. Gobernuen estrategiak aukerak eragozten ditu.

Bakerako bidea errazteko baldintzak sortzen lagundu beharrean, eragozpen berriak jartzen ditu gobernuen estrategiak. Jarrera horren adibide dira Ezker Abertzale tradizioanalaren baitan eztabaidaren garapena ekiditeko saiakerak. Saiakera horien adibide nagusi, Arnaldo Otegi, Rafa Diez eta aipatu mugimendu politikoaren beste buru batzuk atxilotu dituzte. Are gehiago, gobernuen aldetik ez da inongo borondaterik erakusten ari elkarrizketan jarduteko eta alderdi politiko ezberdinen arteko akordioa bultzatzeko. Beren estrategiak, elkarbizitzarako lagungarri izan beharrean, tirabira eta borroka handiagoa eragiten du.

4. Eutsi egiten zaio bakerako eta elkarbizitzarako oinarriko printzipioen aldeko jarrera argiari.

Jada aipatu den indarkeriaren amaieraren aldarrikapenez gainera, bakea eta elkarbizitza lortzeko funtzesko printzipioak hauek dira: 1) alderdi politikoen artean elkarrizketa prozesu bat martxan jartzea, 2) Alderdien Legea indargabetzea eta Ezker Abertzalearen oraingo ilegalizazio egoera lehenagora itzultzea, 3) akordio politiko bat definitzea euskal gizartearen erabakitzeko eskubideari buruz eta 4) herritarren partaidetza eta inplikazioa bultzatzea bakearen aldeko prozesuan.

Lokarriren gomendioak eta konpromisoak bake-prozesu berri bat bultzatzeko.

Bai pertsona parte-hartzaileek betetako galdetegiaren erantzunetatik ateratako proposamenei bai Tokiko Behatokiari jasotako ekarpenei erantzunez, eta behin bake prozesua aztertuta, Lokarrik honako ekintzak gomendatu nahi ditu bakearen alde aurrera egin eta prozesu bat zabaltzeko elkarbizitza hobetzea xede:

1- ETAk indarkeriari amaiera emateko adierazpena

ETAren indarkeria izanik prozesu berri bat ahalbidetzeko baldintzak galarazten dituen oztopo nagusietako bat, adierazpen bat esanik indarkeriari amaiera jartzen diola erabakigarria izan daiteke bake prozesu erabakitzailerik eta behin betiko bati ekiteko.

ETArri zuzendutako eskaerari eutsiko dio Lokarrik bake prozesua desblokeatzeko eta urratu eta mehatxatzen diren giza eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko.

2- Ezker Abertzale tradizionalaren adierazpen argia.

Ezker Abertzale tradizionalaren proposamen berriak dakarren aukera sendotzeko beharrezkoa da Ezker Abertzale tradizioan argi eta garbi adieraztea ETAren indarkeriatik bereizten dela edo ETArengana jotzea borroka armatua bere azken era eman dezan eskatuz. Sinesgarritasun eta konfidantza nahikoa sortzeko ahalmena du erabaki horrek eta euskal gizartearen zati handi baten laguntza lor dezake dinamika politiko eta demokratiko berri bat eratzeko ahaleginean.

Horregatik, Lokarrik eutsi egiten dio Ezker Abertzaleari luzatutako eskaerari. Eskaera horretan galdegiten zaio konprometitzea: 1) indarkeriaren erabilerari uko egitearekin eta 2) indarkeria erabiltzeko edozein saiakeraren edo indarkeria erabiltzeko edozein mehatxuren aurka agetzearekin.

Horrez gainera, Lokarrik eutsi egiten dio Ezker Abertzale tradizionalari zuzendutako kolaborazio proposamenari. Proposamen horren helburua da herritarren borondatea izatea erreferente eta oinarri nagusia elkarbizitza akordioen gabezia arazoei konponbide zehatzak bilatzeko prozesuan.

3- Gobernuen jarrera erraztaile berria.

Aukera berriak eragozteko baliatzen ari diren estrategia baztertu behar dute gobernuak. Bi dira premiaz har ditzaketan neurriak: 1) aske uztea atxiloturik dauden Ezker Abertzale tradizionalaren gidariak eta 2) etorkizunean ez hartzea sektore soziopolitiko horretan zabalduko eztabaida prozesuaren garapen naturala oztapatuko duten erabaki gehiago.

Alde horretatik, zabalduko eztabaida errazteko eskaera zenbait gobernu eta erakundeei igortzeko konpromisoa hartzen du Lokarrik:

a) Gobernu espainiarrari ez ditzan hartu jada berez zaila den eztabaidari, Ezker Abertzale tradizionalaren ilegalizazio egoera dela eta, trabak gaineratzen dizkion neurri gehiago, hala nola, gidari politikoen espetxeratzeak edo elkarte edo erakundeen ilegalizazioa.

b) Entzutegi Nazionalari, Ezker Abertzalearen buruak aske jartzeko eskatuz eztabaidan parte hartu eta gidatu ahal dezaten.

c) Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari, Ezker Abertzale tradizionalak ordezkaturiko sektore sozial eta politikoa berdintasun baldintzetan integratzearen alde lan egiteko eta oinarrizko eskubide eta askatasun demokratikoen urraketekin, hala nola biltzeko, adierazteko edo manifestatzeko eskubideen urraketekin, amaitu dadin.

4- Jarreraren aldaketa.

Beharrezkoa da alderdien, erakundeen eta gizartearen, bere osotasunean, jarrera ausarta eta erabakitzailea bakea lortzeko eta abian jartzeko elkarrizketa prozesu bat, zeinak elkarbizitza inklusiboa eraikitzen lagunduko duen eta euskal gizarteari datzekion pluraltasuna errespetatuko duen.

Komunikazio esparruak sustatzera animatu nahi ditu Lokarrik alderdi politikoak. Esparru horiek sustatuz gero, posible izango da diseinatzea elkarrizketa politikoa ahalbidetuko duten printzipioak eta agenda. Horrekin batera, Lokarrik hitz ematen du bakearen, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko lanean herritarrek parte hartzeko eta inplikatzeko bideak zabaltzeko ahaleginak bikoiztuko dituela. Aipatu helburuak lortzearen, aktiboki lan egiteko borondatea duten pertsonen sarea suspertzeko ekimena aurkeztuko du Lokarrik otsailean.

Lokarriren konpromisoa bakearen eta akordioaren alde aurrera egiteko aukera finkatzeko

2009ko azaroaren 28an

Printzipio bat

Bakea eta bizikidetzaren hobetzea ahalbidetuko dituzten baldintzak garatzen laguntzea da Lokarriren, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren Sarearen, eginkizun nagusia. Arriskuak hartzeko jarrera oinarritzeko orientabidea izan da gure jardueran. Horren adibide hoberena da Gernikan egin genuen herri-kontsulta 2008an Auzitegi Konstituzionalak Esusko Jaurlaritzak onarturikoa debekatu zuenean.

Jarrera bat

Aukerak, oztopoak, aurrerapausoak eta atzerapausoak bata bestearen atzetik gertatzen dira bake prozesu batean. Lokarri sinistuta dago eraginkorragoa dela errealitatean oinarrituriko jarrera itxaropentsua hartzea, zailtasunak begi-bistatik aldenitu gabe aukerak baliatzen lagunduko duen jarrera hartzea.

Aukereretarako unea

Ezker Abertzaleak adierazi du soilik baliabide politikoak eta demokratikoak erabiltzearen alde egingo duela apustu euskal herritarrek askatasunez hartuko dituzten erabakiekiko errespetuan oinarrituriko konponbide prozesu bat garatzeko. Adierazpenak aukera garrantzitsua eskaintzen du azken bake prozesuan zapuztu zen elkarriketa eta akordioaren aldeko bidean behin betikoz aurrera egiteko.

Itxaropenerako zio honek muga garrantzitsuak ditu aurrez aurre. Lehenik eta behin, ETAREN atentatu batek bertan behera utziko luke jarrera horrek eskaintzen duen bakerako aukera. Bigarrenik, aurreko porrotek mesfidantza arrastoa utzi dute alderdi eta gizarte eragileengan. Azkenik, Batasunaren ilegalizazioa eta bere buru nagusien atxiloketek Ezker Abertzalearen proposamena garatzea oztopatzen dute.

Zehatzago izateko eskaera

ETAren indarkeria izanik aukeren unehoni aurka egiten dion arrisku nagusia, Batasunak ordezkaturiko Ezker Abertzaleari berariazko eta gaur bertatik indarrean egongo den konpromiso bat eskatzen diogu 1) indarkeriaren erabilerari uko eginez eta 2) indarkeria erabiltzeko edo beraz erabiltzeko mehatxuen ahaleginei uko eginez.

Konpromiso honi Sinn Fein alderdiak eginiko atxikimendua, Mitchell Printzipioetan jasoa, momentu erabakigarria izan zen Irlandako bake prozesuan. Gure kasuan, antzeko deklarazio batek konponbide prozesuak aurkari dituen oztopo asko mugitzeko gaitasuna du.

Lokarrik ere konpromisoa hartu eta proposamen bat eskaini nahi du

Aukereretarako unehoni laguntzeko Lokarriren borondatea honela zehazten da: Batasunak ordezkaturiko Ezker Abertzalearekin lankidetzaren konpromiso bat hartzea, bakea sendotu eta akordio batean bukatuko den elkarriketa prozesu bat berrabiarazteko.

1. Lokarrik Ezker Abertzalearekin lan egiteko konpromisoa hartzen du konponbide prozesu batean era aske, bake-

tsu eta demokratikoan adierazitako herri-borondatea erreferentzia bakarra bihurtzeko ahaleaginean.

Zentzu honetan, Lokarrik proposamen zehatza aurkeztu nahi du herritarrak izan daitezten euskal gizartearen erabakitzeko eskubidearen inguruan elkarrizketa eta akordio prozesua behin betiko bultzatuko dutenak. Horrela, tokian tokiko 100 herri-kontsulta antolatu eta gauzatzea proposatzen dio Lokarrik Ezker Abertzaleari, beste eragile politiko, sozial eta sindikalekin batera, euskal gizarteari dagokion etorkizuna erabakitzeko eskubidea gauzatzearen inguruan.

Epe laburrean garatu daitekeen lehen pauso bat dela deritzo Lokarrik. Euskal gizartearen babes zabal batek alderdi politiko guztiak elkarrizketa prozesu batera bultzatuko lituzke, erabakitzeko eskubidearen gauzatzea ordenamendu juridikoan barneratuko lukeen akordio batekin amaituz.

2. Lokarrik Ezker Abertzalearekin lan egiteko konpromisoa hartzen du nazioarteko instantzia eta erakundeetan beren legez kanpoko egoera eta bazterketa politikoa salatzeko babesaren bilaketan.